

Laudion, 2025eko irailaren 9a

Maderas de Llodio, Garnica Taldearen parte dena, Enpresa Batzordetik jakinarazi nahi dugu gaur kontsulten lehen bilera ospatu dela. Bilera horretan **enpresak 39 pertsona kaleratu nahi dituela** dioen dokumentazioa aurkeztu du produktibitate eta antolaketa kausengatik, produkzioaren zati bat taldearen beste lantegi batzuetara eraman nahi dutelako. Orain, Enpresak aurkeztutako dokumentazio guztia xehetasunez aztertu behar dugu.

Bileran bertan, aurreko astean idatziz eskatzen genuen bezala, berriro exijitu diogu zuzendaritzari kaleratze kolektiboak edota bestelako neurriak hartzeko erabakia bertan behera uzteko.

Atzo ospatu zen langileen batzarrean, Batzordearen eta plantilla osoaren erabakia bateratua izan da: **Maderas de Llodio-n ez dago inor soberan**. Gure aldarrikapena argia da: ez dugu onartuko lanpostu bat ere suntsitzea ezta lan baldintzak prekarizatzea.

Enpresari adierazi diogu gure helburu bakarra hitzarmen kolektiboaren negoziazioa berreskuratzea dela, baina soilik kaleratze horiek bertan behera utzita, plantilla osoarentzako kalte larri bat suposatzen dutelako.

Horregatik, datorren astean **bi greba-egun** deitu ditugu: **irailaren 16an eta 18an**. Enpresak kaleratzeak ez baditu bertan behera uzten, **mobilizazio eta greba gehiago** egingo ditugu eta beharrezko neurri guztiak hartuko ditugu erabaki horri aurre egiteko.

Berriro errepikatzen dugu: **Maderas de Llodio-n ez dago inor soberan**. Guztiok elkartuta gaude borroka honetan eta irmo jarraituko dugu enpresak erabaki injustu eta kaltegarria mahaian ezabatzen duen arte.

KALERATZEAK EZ!

